

ORTZIA LOREZ

LURRA IZARREZ

AIXERROTA BHI

Ikaslea: L. S.

2003/2004

Aurkibidea

Josanton Artze _____ 1

“Ortzia lorez, lurra izarrez”

◆ Sarrera	2
◆ Poemak	
▪ CIX {Bakarrik sartzen gara mundura}	3
▪ XXVI {Zer nahi, eta hura eman}	5
▪ XX {Askatasun haizea}	7
▪ XLII {Ying-Yang 1}, XLVII {Ying-Yang 2}, LXVII {Ying-Yang 3}	9
▪ XCVI {Nor ez da gauean ...}	11
▪ LXV {-Bi punturen artean, ...}	13
▪ CX {Maitasuna, zer lore bakana!}	15
▪ I {Ez al da lo isil batetik ...}	17
▪ VII {Aiduru}	19
◆ Iritzia	21
◆ Bibliografia	23

Josanton Artze

Josanton Artze 1938ko apirilaren 6an jaio zen Usurbilen. Ez dok Amairu taldearen sortzaileetariko bat da. Berarekin batera Mikel Laboa, Xabier Lete, Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo eta beste batzuk ere parte hartu zuten proiektu honetan. 1969.ean Baga, Biga, Higa sentikariaren eragile nagusietakoa izan zen, eta bere anaia Jesus Marirekin batera txalapartaren eszenariora musika eta dantzarekin batera eraman duen lehen poeta izan da, eta bizitza literariotik eta eztabaidetatik urrundua egon da beti. 1978an bere lehen ikuskizun poetiko propioa estreinatu zuen, Hitzez eta hotsez. Ondoren etorri ziren *Gizon haundia da mundua, eta mundu txikia gizona* (1983an) eta *Mundua gizonarentzat egina, baina ez gizona munduarentzat* (1994an). Goñiko, Harria eta Oihana musika eta poesia jaialdien partehartzaile ere izan zen.

Poesia, bere pasiorik handienaren erakusle dira idatzi dituen poesi liburu ugariak. Besteak beste: *Isturitzetik Tolosan barru* (1969); *Laino guztien azpitik...*(1973); *Eta sasi guztien azpitik...*(1973); *Bide bazterrean hi eta ni kantari* (1979); *Ortzia lorez, lurra izarrez* (1987); *Le monde est un grand homme et l'homme un petit monde* (1994); *Gizon haundia da mundua, eta mundu txikia gizona* eta *Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat* (1998). Honez gain, Sigfrido Koch argazkigilearen *Gure lurra* liburuari testuak ezarri (1977) eta Felipe Uriarte mendizalearen Everesterako espedizioaren liburua, *Buru ilhun lurruntsua* (1981), euskaratu du. Idazleen lanetatik at ere egin du lan, Arantzazuko frantziskanoekin grabatutako kasetetan (Erromesaren poema) kolaborazioak eginez eta “Belarritik bihotzera” grabazioan Bibliako pasarte batzuk errezipitatu, Lazkaoko fraide benediktarrekin batera.

Sarrera

Ortzia lorez lurra izarrez izenburupean poema zintzo, eder, konplexuak, kilikagarriak, serioak, errazak ... batzen dira. Baina guztiak definitzen dituena zera da, pentsatzera bultzatzen dutela, gaia dena delakoa izanik. Hausnartzera bultzatzen du autoreak poema hauen bitartez eta hori oso garrantzitsua da.

Liburua oso modu bitxian argitaratua izan da. Paper eta azal motak ez ohikoak dira. Era berean, argitarapen lana ederra da, baita berezia ere eta gezurra badirudi ere, poemak irakurtzerakoan lagundu egiten du.

Poemak idazteko eran eta antolatze momentuan ere kontu handiz ibili da Josanton Artze eta liburua poemaz apaindu duela dirudi. Antolakuntza kaotikoa eta ordenarik gabekoa badirudi ere, poemak modu jakin batetan kokaturik daudela dirudi. Konkretatuz gero, bizitzaren bide berbera segituz agertzen zaizkigula uste dut. Poema beraren atal batzuk orrialde ezberdinetan agertzeak, sorpresa sortu eta beste bat egongo ote, liburuan zehar bilatzera bultzatzen duela uste dut.

Poemen letra mota eta tamaina aldatzen doaz poemekin batera. Horrek irakurlearen atentzioa deitzeaz gain, lan osoari itxura ederra ematen dio. Mota guztietako letra oso txikiak edota handi-handiak agertzen dira liburuan, poemak izkina batean edota erdian zentratu... behin eta berriro aldatzen da estiloa eta diseinua eta horrek monotonía apurtu eta irakurketa biziki arinagotu eta interesgarriago egiten du.

Aparteko azal eta papera, poemen orden berezi hori, orrialdean poemak dituzten kokapen estrategikoak eta letra ezberdinak, liburua oso landua dela adierazten dute eta ez edonola egindakoa. Ikusten denez autoreak poema bikainak eskaintzeaz gain arte egiteko modu bat erakusten digu, zeren liburu honekin egin duena arte bezala ikus daiteke.

Lan honetan, autoreak idatzitako poemen artean batzuk aukeratu eta ahal izan dudana moduan, hauek iradoki didatena azaldu nahi izan dut. Bestalde, poemen gaiaren inguruko nire iritzia eta ikuspuntua eman dut aditzera.

Bakarrik sartzen gara mundura,
bakarrik,
bakarrik irteten mundutik,
bakarrik, guztiok.

Bakarrik egiten du bakoitzak,
bakarrik, mundu hontako bidea,
bakarrik, beste munduetakoa ere,
bakoitzak berea duen bide bakarra;

bakarra, nork berak ezik
bestek ezin egina,
batek besteren orde egin ezina,
bakoitzak egin beharrekoa
aurten ez bada geurtz,
hemen ez bada han,
gogoz nahiz gogoz kontra,
bakoitzak, burutik burura bidea,
bakarrik eta bakarka ...

Bakarrarekin berriro
batu arte,
baturik ere besterekin nahasiko ez den
Batasuna baitan.

CIX

Bakardadea, poemak argi adierazten duenez, gure bizitzan zehar gure alboan dugun `laguna´ da. Egunak jendez inguratuz igarotzen baditugu ere, gure burua besterik ez dugu. Bakardadean pasatzen dugu azken finean bizitza, gainera, sarritan honen beharra izaten dugu. Modu batean bakardadearen beharra dugu, zeren momentu askotan, latzetan gehienbat, bakardadera jotzen dugu gure buruari galderak eginez arazoak konpondu bahian. Bakardadean ez bada, ezin dugu gure burua ondo ezagutu, izan ere, orokorrean bakarrik gaudenean izaten da gure izateari so egiten diogunean. Modu berean, benetan gu geu gure konpainia soilik dugunean garelako pentsatzen dut, inoren presentziaren eragina izan barik. Agidanez, segun non eta norekin gauden ezberdin konpontzen gara.

Gure bizitza lagun min eska, lagun gutxi, ezagun asko eta ezezagun gehiagoz inguratuta pasatzen dugun bitartean, guri leial mantentzen ohi den bakarra gure burua bera da. Horrek, bakardadeak, beldurra ematen digu, ez baitugu geratzen zaigun denbora bakarrik igaro behar. Nire ustez, ordea, ez da beldurtu beharrekoa, legezkoa ikusten baitut bakarrik egon beharra, nahiz eta lagunez inguratzea ezinbesteko ikusi ere hauek bizitza hobeto igarotzen laguntzen baitute. Nolanahi ere, bizitza lagunez betetzeaz gain bakardadea bizitzaren beste atal handi eta garrantzitsu bat dela asumitu behar dugu. Hori egin ezean arazo psikologikoak sortu daitezke eta.

Nahitaez bizi behar dugun odisea honetan ezin lagundu gaituzten lagunak ditugu eta euskarri onak badira ere, ezin dute gure bizitza bizi. Gauzak horrela, bizitzan gure kabuz aurrera egiten ikasi behar dugu, gure kontran aurkitzen ditugun arazoei aurre egiten eta gure helburuak lortzeko borrokatuz. Ezin dugu behin eta berriro beldurtzen gaituzten egoerei bizkarra eman, poemak dioen bezala “Bakarrik egiten du bakoitzak, bakarrik, mundu hontako bidea (...) aurten ez bada geurtz, hemen ez bada han, gogoz nahiz gogoz kontra (...)” eta gogor eta zorientasunez ekin behar diogu egunero sortarazten zaizkigun egoerak aurrera eramatera.

XXVI

**Zer nahi,
eta hura eman.**

**Zer eska,
eta hura ekarri
haurrari.**

**Bihar zure lepoa eta burua eskatuko ditu,
eta zuk eman egin behar,
bestela moztu eta ostu egingo dizkizu eta**

XXVI

Heziketa desegokiaren inguruko gaia jorratzen du poemaren autoreak kasu honetan. Kanta baten letra bihurturik, poema pentsaraztera bultzatu nau. Izan ere, sarritan heziketa ez dela hain garrantzitsua uste badugu ere, gure etorkizunean eta bizi osoan gure zoriontasuna baldintzatuko duen gauza da. Baldintzatuko duela esaten dut zeren nire ustez, norberak ikasitakoaren arabera antolatzen du bizitza. Dena eskatu eta jasotzen ohituz gero, bizitzan hori horrela ez izatean guztiz txarto sentitu eta nahi duena edonola lortzen ahaleginduko da. Horrek, pertsona guztiz berekoi, zital eta egozentrikoa bihurtuko du.

Nahi duena lortzeko edozer egiteko gai diren pertsona asko psikologi arazoekin bukatu ohi dute, nahi dutena ezin dutela izan onartu ezin dutelako. Gainera, besteei gauzak lortzen ikusteak haien nahi hori areagotzen du. Horregatik ondo deritzot gazteetatik heziketa egokia ematea, nahi duten guztiak ez ematea dela egokiena pentsatzen dut, izan ere ez da arrazoizkoa nahi duen beste ematea da. Modu berean, dena eskatuz baino ez lortzea bere norberaren kalterako da, bizitzan nahi duguna eskuratzeko borrokatu behar dugu, lan asko egin behar dugu gure helburuak lortzearen. Hori oso argi izan behar dugu txikitatik, txarto ohituz gero oso zaila izaten baita norberak bere kabuz, inoren laguntzarik gabe, gauzak lortzea.

Nire ustez, pertsonak, are gehiago umeak (txikitan ikasitakoaren arabera bizi izango dira eta), gauza guztiak ezin daitezkeela lortu argi izan behar dutela pentsatzen dut. Osterantzean nahi dutena lortu ezinik egonik, zoriontsu izatera ailegatuko ez baitira.

Eskatzen duena ezezkorik gabe beti lortu izan duenak ez du ezezkorik ulertuko eta arriskutsua izan daitekeen arazoa da hori. Poemaren autoreak hori adierazi nahi duela uste dut, “Bihar zure lepoa eta burua eskatuko ditu, ..., bestela moztu eta ostu egingo dizkizu eta.” idazten duenean. Adibidea lepoa eta buruarekin ipini izana, kasualitate hutsa ez dela sinesten dut. Izan ere beste edozer idatz zezakeen bere orde, baina burua eta lepoa dira benetan gure atentzioa deitzen dutenak. Gogortasunez eta modu oso erradikalean agertzen du bere iritzia autoreak, baina horixe bera da poemaren ezaugarriarik biziena. Horrek ematen dio garrantzia agian beste modu batean izango ez zuen ari. Niri behintzat, azken tarte horrek hunkitu nau, dena lortzen ohituta dagoenaren nahi geldiezinak sor dezakeena alegia. Benetan, heziketa eta ohituen inguruan pentsarazten jarri nauena poema osoa izan bada ere, bukaerako zatitxo horrek darama bere baitan pisu osoa.

a)

*Askatasun haizea
balaz gelditu nahi ohi du
erho astoak,
tiranoak!*

*Askatasun xoriak
tiroz eratsi nahi ohi ditu
esklaboak,
asto erhoak!*

b)

*Ez uste esklabotik tiranora
halako aldea dagoenik,
ez behintzat
erho astotik asto erhora
baino handiagorik,*

d)

*Etzazue uste gero
esklabotik tiranora
edo tiranotik esklabora
halako aldea dagoenik,
esklaboak
bere burua tiranizatzen dik,
tiranoak
bere burua esklabotzen din.*

XX

Oso hitz joko ederrekin apaindurik, poema hauek benetan gustatu zaizkit. Esklaboa, tiranoa, biak haien egoeraren erru, biak konplizeak. Esklaboaren eta tiranoaren arteko erlazioa oso gai ona deritzot poema batentzako, are gehiago hain modu politean landuta badago.

Esklaboa eta tiranoa maila berean jartzen ditu autoreak, “Ez uste esklabotik tiranora halako aldea dagoenik”. Bai bata zein bestea bere egoeraren errudun bakar bezala jartzen ditu autoreak, izan ere “esklaboak bere burua tiranizatzen dik” eta tiranoak berdin, “tiranoak bere burua esklabotzen du”.

Esklaboa eta tiranoa, historian zehar betidanik eta seguruenik betirako existituko diren bi pertsonai. Bata bestearen existentziarik gabe izango ez zena eta biak haien egoeraren errudun. Esklaboak bere tiranoaren menpe bizi den bitartean, tiranoak bere esklaborik gabe ez da inor. Bere `botere´ eta `ahalmenak´ baldin baditu, esklaboak permititzen duelako da.

Tiranoak esklaboaren menpe bizi da moduren batean, izan ere, esklaboa agindu eta mantendu behar du, esklaborik gabe tirano izateari utziko zion eta. Era berean, esklaboa ez da inor bere tiranorik gabe. Ez du bere bizitza zuzenduko duenik, ez du bere lana aginduko duenik eta galdurik ikusiko du bere burua, noraezean, zer egin ez dakiela. Horixe bera gertatuko litzaioke tiranoari esklaborik izango ez bazuen, nor agindu ez izanik, zer egin ez zuen jakingo eta lana bere kabuz ezin izango luke egin.

Laburbilduz, tiranoak esklaboaren beharra duen moduan, esklaboak tiranoarena behar du. Eta bata bestetik askatzerakoan, bata bestearen babesik gabe geratzean kale gorrian ikusiko dira; zer egin ere ez dakitela. Horrexegatik bata bestearekin segitzen du nahiz eta mendeak eta mendeak igaro. Bizitza era horretara antolatuta, beste era batera bizitzeko gai ez dira. Tiranoak esklaboa galtzean beste bat bilatuko du eta esklaboak beste tirano bat.

XLII ;YING-YANG 1

Lur honetan ez duzu zorionik,
hain gozorik,
ozpin tantarik ez darionik.

ez eta ere zorigaitzik,
horren garratzik,
ezti tantaz eztitua ez denik.

XLVII ;YING-YANG 2

Ez da larrosarikan arantzarik gabe...
ezta arantzarikan ere larrosarik gabe !

LXVII ;YING-YANG

3

Begiaren hezurra,
egiaren gezurra

XLII ,YING-YANG 1
XLVII , YING-YANG 2
LXVII , YING- YANG 3

Hiru poema hauek oso ederrak iruditu zaizkit zorientasuna eta zorigaitza modu adimentsuan jorratzen baititu. Poemak irakurtzean atera dudan ondorio edo konklusiorik funtsezkoena, zorientasun edo zorigaitzik absoluturik existitzen ez dela da. Esandakoaren arabera, ez dago bizitzan egoera guztiz zoriontsu edo tristea.

Ying-Yang poema hauen ideia ona da benetan. Izenburuak adierazten duen bezala, ona eta txarra, biak batera beti eta era berean biak beharrezkoak. Ezin litzateke ongia existitu gaizkia ezagutuko ez bagenu. Are gehiago, beti elkarrekin doaz, ez baitago guztiz zoriontsua, bere alde txarra ez duen egoerarik. Edozein modutan ere, ez dago guztiz zorigaitza, bere alde ona ez duen egoerarik. Bigarren zatiak, Ying-Yang 2, adierazten duenez ez dago, ez da existitzen zorientasuna zorigaitzik gabe ezta zorientasunik gabeko zorigaitzik ere. Biak elkar behar dute, ezin liteke bat existitu bestea existituko ez balitz. Are gehiago, beti elkarrekin agertzen direla pentsatzen dut, bidaia eskutik helduta egingo balute bezala.

Pentsa daiteke, zorientasun eta zorigaitzaren arteko erlazio bereiztezin horrek gure bizitzari kalte egin dakiokela baina nire ustez ez da horrela. Konkretatuz gero, beharrezkoa ikusten dut biak elkarrekin agertzea, izan ere ez dut gizakia egoera absolutuki ona edo guztiz tragikoa pairatzeko gai ikusten. Egoerak bata bestearen atzetik, abisurik gabe eta nahastuta etortzen zaizkigu. Hori dela eta oso txarra izango litzateke gure sentimenduetarako eta gure psikologiarako ere, bat batean guztiz zoriontsu izatetik guztiz madarikatuak izatera pasatzea. Ez daude horrelako aldaketa sakonak jasotzeko prestatuta. Gainera zorientasunak duen `ozpin tanta´ horrek ematen digu aurrera egiteko, hobetzeko eta zoriontsuago izateko gogoak. Gauza bera gertatzen da zorigaitzak gozotzen dituen `ezti tantarekin´, bihotza esperantzaz betetzen eta zorigaitza hobeto eramaten laguntzen gaituela.

XCVI

**Nor ez da gauean
goiz ederrago baten
esperantzan etzaten ?**

**Nori zaio ahaztuko hori
dena gogoratu behar denean,
azken gauean, azken loan ?**

XCVI

Hobetzeko grinak, zorientasuna lortzeko esperantza inoiz bukatuko ez diren sentimenduak dira. Poema hau, tristea iruditzen zait, nahiz eta hasieran esperantza kutsu bat izan. Berriro ere, autoreak galderaz baliatzen da bere poemak idazterako orduan, eta arestian esan bezala (beste poemaren bat komentatzerakoan), joko handia ematen duen gauza da hau. Zeren, erantzuna irakurlearen gain usten dut, horrek infinitu erantzun ezberdin egoteko aukera emanik.

Triste iruditzen zait honako poema, esperantzaz etzaten garenean, egun txarra izan dugulako baita. Izan zitekeen, egun ona izan eta antzeko eguna deseatzten lokartzea; baina benetan ez dut uste hori horrela denik. “Nor ez da gauean goiz ederrago baten esperantzaz etzaten” irakurtzerakoan, tristura etortzen zait burura, hainbestetan egun txarra izan eta ia zer egun etorriko ote etzaten naizen horietako gau batean pentsatzen dut. Pozik zaudenean ez duzulako aurrera begiratzen, momentua bizitzearekin nahiko izaten duzu. Baina triste edo txarto sentitzen zarenean, momentu horiek pasatzea baino besterik ez nahi duzu, eta esperantzaz begiratzen diozu hurrengo egunari.

Bigarren bertsoari dagokionez, heriotzaren ingurukoa dela esango nuke eta beraz tristea ere. ‘Dena gogoratu behar denean, azken gauean, azken loan’, hil zorian dagoen pertsona, hil aurreko azken unean, bizitzari azken errepassoa edo begirada bota egiten dion unean ezin dela esperantza alboratu esan nahi duela pentsatzen dut. Hala ere, lan zaila da hori, hiltzear zaudela ez baituzu esperantzekin egoteko ez indar ezta gogorik ere.

Gogorra bada ere, ederra ere bada poema hau eta heriotzaren inguruan daukagun ideiez pentsatzea komeni zaigula pentsatzera bultzatu nau. Izan ere, beti gabiltza beldurrez heriotza ikusi nahi ez dugula. Ingurukoak joan eta itzultzen ez direla ikusten badugu ere, gu betirako egongo garela iruditzen zaigu eta sarri askotan horregatik ez dugu bizitza behar bezala aprobeztatzen. Eta horixe bera da egin behar duguna, etortzen zaigunari alde ona, positiboa atera eta ahal den moduan zoriontsu izatea. Izan ere, zoriontsu izaten saiatzen ez bagara eta zoriontasuna bere kabuz etorriko dela pentsatzen badugu, esperantzaz bakarrik baliatuz, ez dugu zoriontasuna lortuko. beraz, gure alde dugun guztia aprobeztatu behar dugu, azken finean, zer da bizitza bidai labur bat baino? Eta bidea zoriontsu egiten ez badugu, zertarako nahi dugu bizi?

LXV

- ↔ **Bi punturen artean,
zein da biderik laburrena ? ≈**

- ↔ **Biderik ederrena ! ≈**

- ↔ **Eta, zein da biderik ederrena ? ≈**

- ↔ **Egiara daramana ≈ .**

LXV

Poemak adierazten duenarekin ados egoteak bultzatu nau hau hautatzera, izan ere, gustura egiten den bidean ez dago aldaparik. Esaten denez, ontzi txikietan gordetzen dira esentzia hoberenak, eta egia izango da zeren poema honetako lau esaldietan gauza asko adierazten dira. Ezaugarri hori oso ona da, gainera hitz gutxitan asko esateak, irakurlari ikuspuntu ezberdinetatik gaia begiratzea ahalbidetzen dio; gauzak guztiz esatean gertatzen ez dena.

Kasu honetan, autoreak poemetan erakusten duen kutsu filosofikoa nabaritzen dela uste dut. Poema osoak ukitu filosofikoa badu ere, nire ustez azken bi esaldietan, azken galderan eta erantzunean gordetzen da poemaren gakoa.

Egia da, gustatzen zaiguna egiterakoan berdin zaigula esfortzua egin beharra. Edonork nahiago du gogoko bide luzea egitea gogoz kontrako laburra baino. Izan ere, gogoz egiten bada, bidea den baino laburragoa iruditzen zaigu. Gogoz kontra egiten bada, aldiz, den baino luzeagoa egiten zaigu. Hau, bizitzaren edozein arlotan gertatzen den gauza da, ikasketetan adibidez.

Gustura egiten dugun bidea, gozatzen dugun bitartean, ez dago axolarik, ez dugu bidea luzea edo beste ezer denik esaten. Bestela esanda, bidaia luzea gozatzen egiterakoan ez dugu inolako arazorik. Arazoa gogoz kontrako bidea egiterakoan dator, nahiz eta bide hori oso laburra izan.

Bigarren galdera eta bere erantzunaren kontzeptua, egiarako bidea bide ederrena dela, Platonen filosofia dakarkit burura. Honen arabera, egia da ederrena eta egiarako bidean baino, egia bera ezagutzean ezagutzen dugu ederra, justizia, ongia...

Nire ustez, egiarako bidea emozioz betetako bidea da, galderaz eta zalantza gainezka dagoena. Izan daiteke, emozio eta sentimendu horiek egiarako bidai hori ederra izatea ahalbidetzen duten zergatiak izatea.

CX

***Maitasuna,
zer lore bakana!***

ba ote ederragorik?

***ba ote ximelkorragorik ...?
sasikoa denean!***

CX

Poemen gai nagusia eta mitikoena jorratzen du poema hau, maitasuna alegia. Ez du bikote baten kasuaz hitz egiten, ezta desamodioaz ere ez. Maitasunaz beraz hitz egiten du. Mirespenean, ilusioan, desiran, alaitasunean, esperantzan... oinarritzen den maitasunaren inguruan mintzo da poema.

Alde batetik, ez nago guztiz ados maitasuna bakana den baieztapenarekin. Egia da maitasuna norberak berea, bakarra bizi duela. Baina kontuan izan bestetik, maitasuna edonon dagoela, milaka forma eta dimentsio hartuz. Nire ikuspuntutik maitasuna ez da beste pertsona bakarrarekiko izan daitekeen amodioa, are gehiago, maitasuna senideen arteko erlazioetan, lagunartean eta baita herriarekikoa, edota hamaika arlo ezberdine-

kikoa ere izan daiteke. Maitasuna interesatzen zaizkigun erlazio orotan dago. Izan daiteke, maitasun mota asko bizitzea baina mota bakoitzeko bakarra eta errepika ezina bizitzea, orduan kasu honetan ados egongo nintzateke maitasuna bakana den baieztapenarekin. Izan ere bizitzen dugun maitasun mota bakoitza bakana da izatez, eta ez dago munduan gu maitasun horren bidez sentitzen ari garena sentitzen duenik.

Beste alde batetik, poemaren bigarren zatiarekin bat nator. Egia da maitasuna benetakoa ez denean laster zimeltzen, bukatzen dela. Pertsona asko arazoak izaten ditu bere erlazioa bukatzerakoan, bere bikotea eta haien arteko erlazioa idealizatuta zutelako. Baina desenganioa pasatu ondoren berriro beste bikote `perfektu´ bat bilatzera ekiten diote. Bizitzak ematen dizkigun kasuak dira hauek, eta hauek, moduren batean, nire pentsamendua baldintzatzen dute. Nik uste, pertsona guztiak nahi dugu maitatuak sentitzea eta horrek bikotea bilatzera bultzatzen gaitu; instinto animaliak aparte. Ez hori bakarrik, aurkitutakoan betirako mantendu nahi dugu, bakardadeari izugarrizko beldurra hartzen diogularik. Horrek segurtasun eza, zelatia bilakatzea, edozergatik haserretzea... zentzu gabeko egoerak sortarazten ditu.

Gizarteak bere erduekin eta ohiturekin maitasunaren inguruko ideiak baldintzatu baino ez ditu egiten eta baldintzapen horiek generazioz generazio finkatzen doaz. Besteen artean, bikote baten erlazioa bukatzean, porrot bat bezala ikusten da, egoera edota zergatiak kontuan izan gabe. Nire ustez gauzak ez dira ikuspuntu horretatik begiratu behar, baizik eta igarotako momentu ederrekin geratu behar gara.

Maitasunak ematen dizkigun zoriontasun uneak bizi behar ditugu, gorabeherak disfrutatuz eta beti ere mundu honetan maitasunak zoriontsu izateko aukera bikainak ematen dizkigula presente izan behar dugu, hauek aprobetxatzen jakin ere.

I

a)

Ez al da
lo isil batetik
amets ozen batera
jeikitzea,
jaiotzea ?

I

Galdera honen bitartez, erantzuna aurkitzera bultzatzen du autoreak. Kasu honetan ere, filosofo baten antzera jokatzeko du, galderak botaz. Galderari erantzuna jarri zezakeen Jasanton Artze, baina seguruenik, ondo pentsatu eta galdera soilik utzi du. Hau bakarrik utziz, irakurlea pentsarazi egiten du, erantzun egoki baten bila burua lanean jarritz. Hau oso gauza egoki eta interesgarria delarik.

Baietz erantzungo nioke nik galdera honi. Baietz, bizitza sarri askotan `amets ozen´ bat baino beste ezer ez delako eta jaiotzen garen momentuan hasten garelako bizitzaren abenturan. Abentura, ezezagun dugun munduan eta egoera batean aurkitzen garelako; babesik gabe, bederatzi hilabetez guztiz babesturik egon garen bitartean.

Zaila da jaiotza deskribatzea, izaki biziduna bere amaren sabeletik zein arrautzatik irtetea izango litzateke azalpenik orokorra. Baina jaiotzen denaren ikuspuntutik ikusita, orduan azalpena zeharo aldatuko litzateke. Tristeia bada ere, inor ez da bere jaiotzaz gogoratzen eta gauza oso interesgarria izango litzateke jaio berrien sentimenduak eta pentsatzen badute, haien pentsaerak ezagutzea. Agian inoiz jakingo ez dugun gauza da, baina benetan gustatuko litzaidake hain aldaketa sakona bizi berri duen txikiaren buruan zer gertatzen dagoen jakitea. Alde batetik, enteratzen ere ez dela uste dut, bere burua oraindik horretarako prestatuta ez dagoelako, baina beste alde batetik, beldurrez beteta egon behar duela ere pentsatzen dut, izan ere, izugarrizko aldaketa bizi berria baitu. Amaren sabelean guztiz babesturik egotetik, bat-batean, denbora oso laburraren buruan, kanpoan, beste ingurune oso ezberdinean aurkitzera.

Askotan, umetxo baten antzera, amaren sabelean lo, munduan gertatzen denatik urrun egon nahi nuke. Babestuta, inolako beldurrik edo erantzukizunik gabe, zoriontsu egon nahi nuke. Baina orduantxe ikusten diot bizitzari bere emozio hori, bere edertasun hori eta zaila bada ere bidea egiten segitu nahi dut. Amets ozenean zehar egin nahi dut aurrera, bizitza amets eder baten antzera jaso nahi dut ahalik eta momentu gehienetan, horrela zoriontsu izan nahi dut.

VII ; Aiduru

Nola zintzakedan bada
nik zu maita
ez zintudan ezagutzen eta?
Eta nola zu ezagut
maite ez bazintudan jada?

Zure bila ibili dira urduri
ene begiok,
galdu den bildotsarenak bait liren,
bila, bere amaren,
urduri eta luzaz
urrutiko bazterretan,
kanpoan zure bila:

itxurak itsututa,
kolorez lausoturik,
barru barruko argiaren ikustetik,
dira ene begiok ibili;

putzu zulotan zekusaten eguzkia
ustez eta zelakoan egiazkoa
dira luzaz ibili ene begiok
azalean zure bila:

zekusatelakoan ez ikusiz,
zekitelakoan ez ikasiz,
sortzez itsu denari gertatzen zaionez
argirik denik ere ez iritzirik,
ilhunbeaz beste argirik ez dela aldarrikatzen
dira luzaz ene begiok ibili,
ametsetan eta esnairik,
etzanik eta zutik, zure atzetik,
beti kanpoan, beti azalean ...

zu, etxean zintuztena,
sutondoan ahantzia !
o, argi ororen argia,
maiteetan maiteena !
zu, kerik gabeko su,
itzalik gabeko argi !

Begietara gabe
bihotzean zintudan
aspaldi haundian
sakonki erroturik.

Erantzunez gainezka ibili nauzu zeure etxetik urrun.

Galdera bakar batek dit hustu burua,
bete, bihotza;
galdera bakar horrek nauka
orain zure atarian deika,
o, maite!
egunsentiaren atea noiz,
zabal zabal,
zabalduko didazun zai.

VII

Izugarri ederra iruditu zait poesia hau; guztiz ederra. Amodiozko poema bikaina da honako hau, bihotzeraino heldu zaidana. Maitasuna, maitalea eta bere maitatuarenganako sentimenduaz mintzo da idazlea. Maitasuna eta pasioa transmititzen dituen poema dugu honako hau.

Lehenengo bertsoan, ezagutzen ez duguna maitatzea zein arraro den ikus daiteke. Izan ere, nola gustatu ahal zaigu ezagutzen ez dugun edozer? Ba agian horrexegatik gustatzen zaigu, ezagutzen ez dugulako eta ezagutzen ez duguna asmatu eta idealizatzen dugulako. Eguneroko bizitzan maiz gertatzen den gauza da hori. Era berean, ezagutzeko ezagutu nahi denarekiko maitasuna ezinbestekoa dela adierazten da. Gai horretaz mintzatu zen Platon ere. Bere ustez, gauzak ezagutu ahal izateko beharrezkoa zen ezagutu nahi izatea eta horrenganako maitasuna izatea. Ezagutu nahi duenak ezagutu nahi duenarekiko erlazio bat sortu behar du, hartu emaniko erlazioa. Maitasuna nagusi izango delarik erlazio horretan.

Beti, momentu oro bere maitalearen bila dabiltzan begiak izugarritzko maitasuna adierazten dute, baita urduritasuna eta ezinegona ere. Dirudienez, maitalea ez da maitatua sentitzen edo behintzat ez dago horretaz oso ziur; eta horregatik sentitzen da hain ezinegonean, soilik bere maitalea ikusi nahirik, itsu-itsuan. Guztiz maitemindurik dagoen pertsonaren egoera da honako hau, bere maitalea idealizatu eta bere inguruan antolatu du bizitza, ez du beste ezertan pentsatzen ezta pentsatu nahi ere.

“Begietara gabe bihotzean zintudan aspaldi handian sakonki erroturik”, berarentzat pertsona maitatua gustuko duen pertsona baino askoz gehiago dela adierazten du zati honetan nire ustez. Begietan soilik ez, bihotzean ere badaramala esaten du, benetan maiteminduta dagoela esan nahirik bezala. “Galdera bakar batek dit hustu burua, bete, bihotza; galdera bakar horrek nauka orain zure atarian deika, o, maite!”. Galdera ez dakit zein izan liteke, agian, galdera horren bitartez maite duela esan dio bere maitatuak maitaleari. Hori dela eta, bere kezka guztiak alde batera hutsi eta ‘burua hustu’ dio. Era berean, berak hainbeste maitatzen eta miresten duen pertsona horregatik maitasuna jasotzea ‘bihotza betetzen’ dio, dudak alde batera utziz eta guztiz zoriontsu bihurtuz. Horrela, bikotea elkar maite dutela jakinik, beldurrik gabe, pozez zoraturik, maitasunaz gainezka aurkitzen dira. Maitalea bere maitatua itxaroten du bere atarian, hau noiz etorriko zain, noiz biok batera elkarrekin egingo duten bidaia hasiko.

Iritzia

Obra hau oso liburu berezi eta interesgarria da. Poesia literaturaren alde ahaztua izaten da sarritan eta are gehiago euskarari, horrexegatik iruditu zait lan bitxia honako hau. Gainera, klasean poemak lantzeko aukerak eskasak izanik lana gogo gehiagorekin hartu dut.

Josanton Artze edozein gai jorrazteko gai dela erakusten du liburu honetan eta ez hori bakarrik, hamaika gaietan aditua dela ere frogatzen du. Poeta ez ezik, filosofoa ere bada moduren batean, izan ere gai eta galdera filosofiko ugariengatik inguruan egiten du gogoeta. Ideia filosofikoak poema bihurtu eta irakurlea pentsatzera bultzatzen duela dirudi.

Filosofia kutsu hori gustatu zait asko eta lanetik at, bizitzaren hainbat aspekturen inguruan hausnartzera bultzatu nau. Autorea gai onak hautatzen badakiela iruditu zait, poesiaren gai mitikoei gehiegizko jaramonik egin gabe. Horrela maitasunaz mintzo da, baina neurri batekin eta ikuspegi ezberdinetatik. Bizitzaren zentzua, bakardadea, beldurra, handinahikeria, koldarkeria... gai hauek guztiak eta beste hainbat eta hainbat poesiaren zerbitzuetara ipintzen ditu izugarriko estiloarekin. Hainbeste gai erabiliz, Josean Artzek guztion gustuko poemak sortzen ditu. Askotan ahaztuta genituen gai edo arazoak transmititzen dizkigu, gauzak esan gabe esaten. Zeren batzuetan gauzak oso argi adierazten baditu ere, besteetan guztiz kontrakoak egiten du eta orduan gure ideiak sartzen dira jokoan, orduan norberak bere ikuspuntutik moldatzen du nahi bezala poema. Hori asko gustatu zaidan gauza izan da, poetak irakurleari iritzia ematera bultzatzen duela, eta baita gaiak hausnartzera.

Liburuari buruzko iritziari dagokionez oso iritzi ona dut. Liburu ezberdina da, ez soilik poemaz beteta dagoelako baizik eta aurkezpena ere oso berezia delako. Liburuaren etxean edukitzeko modukoa da, gozatzeko liburu baina. Lanaren iritzia ere, berdintsua da, izan ere, liburu gustatuta lana egiteak liluratu nau. Batetik oso lan ez ohikoa delako, ez da hain lan teknikoa eta bestetik bakoitzaren sentimenduak eta iritziak agerrarazi behar direlako. Gainera norberari interesatzen, gustatzen edo atentzioa deitzen dizkieten poemak aukeratu behar dira. Aukeratu behar horrek, liburu miatu eta poema batzuk alboratzea dakar eta lan hori benetan interesgarria iruditu zait, azken finean liburuaren beraren esentzia deskubritzen da era honetan.

Horrenbestez, lan bikaina iruditu zait, originala eta gure sentimenduak aurkitu edo pizteko balio izan duena. Gustura egin dudana da eta beraz, zailtasunak arazorik gabe gaindituz, lana gogoz bukatu dut.

Bibliografia

Lan hau burutu ahal izateko hainbat liburu, hiztegi, informatika programa eta Internet helbideren laguntzaz baliatu nahiz, besteak beste:

- ◆ ***Ortzia lorez lurra izarrez***, Josanton Artze.Artze
- ◆ ***Adorez 2*** (euskarazko hiztegia),“Bostak bat” lan taldea.Elkar
- ◆ ***Adorez 3*** (sinonimoen hiztegia),“Bostak bat” lan taldea.Elkar
- ◆ ***Hiru mila*** (euskarazko hiztegia), Askoren artean. Ekiten taldea
- ◆ ***Microsoft Word Euskara***, Microsoft Office. Microsoft
- ◆ ***www.gureagenda.com***, Internet
- ◆ ***www.susa-literatura.com***, Internet